

BERRIGARA

61. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1992, apirilak 24




MARIAREN SIERBAK



**Jaiak
Elorregin:
San Prudentzio**



**Udalak
eliz artxiiboak
mikrofilmatu**




**Xakea:
Igandean azken
partidak**



OPEL ASTRA BERRIA

POTENTZIA ADIMENTSUA




OPEL 

TALLERES OLA, S. L.

Olabarreña Auzoa, z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn:
Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO, LEINTZ BAILARA
ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria



OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENTZIAZ.



**Pintxoak, eguneroko menua eta
karta bereziak ditugu
Betiko eta oraingo sukaldaritza**

ARGAZKI

Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

Aurora Telleriarte

Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun zuzena
hau zen: Jesuitak
Aurora Telleriartek irabazi du Urcelay
harategiko SARIA.

**ZORIONAK irabazleari!!
Eta besteok animatu, eta erantzuna eman
aste honetako galderari!**

**Urcelay
HARATEGIA**

**GURE BASERRIAN
HAZITAKO TXAHALAK**

**Etxean egindako txorizo,
saltxitxa, odoloste, e.a.k**

Ibargarai 16, Tfnoa: 76 00 45 / 76 37 77

Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jaurlaritza

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal eta Eurne Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezibar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Mariipi Laskurain, Nerea Alzela, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezibar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kifur eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:
BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Legu gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Gipuzkoako IV. Haur Koralen eguna

ospatuko da igande honetan Bergaran. Guztira, 19 abesbatz izango dira, goizeko 9.30etatik arratsaldeko 6ak bitartean, herriko kale eta txoko guztiak musika-ekin alaitzeaz arduratuko direnak. Ekitaldi nagusia, eguerdiko ordu batetan, talde guztiak Plazan eskeiniko duten kontzertua izango dugu.

LARUNBATA 25

• Labegaraietako jaiak:

- 12 orduko futbito txapelketa, goizeko 9etatik Kiroldegian.

• Jaiak Elorregin:

- Pelotaleku berriaren inauguraketa 12etan. Bazkaria 2.30etan.

• Pelota partiduak:

- Arteaga-Andueza VI./Muntion-Astarloa, Ansuategi-Iturza/Ariznabarreta-Retegi IV. eta Telletxea-Garaita/Gabilondo-Alberdi III., Pelotalekuan 16.30etan.

• Musika:

- *Requiem* eta *La Secta*,

Tartufon gauerdian.

- *Lotxo* taldearekin erromeria Elorregin, 22.30etan.

IGANDEA 26

• Pelota:

- III. Otaba Pelota Txapelketa, goizeko 11etan Elusun.

• Jaiak Elorregin:

- Meza 11etan. Ondoren dantzariak, txinga erutea eta pelota partiduak.

ASTEARTEA 28

• San Prudentzio:

- Meza santua arratsaldeko 7.30etan Elorregin.

FARMAZIAK



25 Camacho/Corcuera (Arrasaten gauetz)
26 Camacho/Irizar
27 Puy/Amezua
28 Guallar/Ruiz
29 Estella/Morales
30 Mozos/Azkoaga

ZINEA



*Pesadilla final:
la muerte de
Freddy*

• OSTIRALA: 22.30.
• LARUNBATA: 17.00,
19.30 eta 22.30etan.

Delicatessen

• IGANDEA: 17.00,
19.30 eta 22.15etan
• ASTELEHENA: 19.30.

Suburban comando

• IGANDEA: 11.30etan.

OGIA



Bolintxo

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

ELEKTRO

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak,
automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19,

Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43

ORTZI

Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

Ikastola, guztion arazoa

Berriro ere, ikastolei buruzko eztabaida sortu da. Arazo zaila, kaletar arruntak ongi ulertzen ez duena baina, oraindik, euskal autonomiak gainditu ez duen asignatura dena.

Hamabi urteko autogobernuaren ondotik, ez gara oraindik gauza izan ikastolak gure hezkuntz-sistema barruan kokatzeko. Hamabi urte, urte asko dira eta kontuak eskatzeko ordua da.

Eztabaidak hiru korapilo ditu. Lehenik, Euskal Eskola publikoaren zori-oreko Lege-proiektua. Bigarren, etorri beharreko lege berri horren eta ikastolen arteko "konfluentzia". Azkenik, ikastolen oraingo eta geroko finantzia-zioa.

Hiru arazo hauek oso garrantzitsu eta goi-mailakoak izan arren, ezin dugu pentsatu zenbait aditu, politiko eta funtzionarioen kontua bakarrik denik, edota eguneroko bizitzan eraginik ez duenik.

Errealitateak besterik esaten du. Batzuk eta besteak kontzeptu zailak eztabaidatzen ari diren bitartean, salatu beharreko erasoak gertatzen ari dira. Esate baterako, badira gure herrian gogoratu beharreko arazo batzuk:

1.- Oraingo Hezkuntza Sailak ez du bete nahi bere aurrekoak agindu zuena.

Ondorioz, gure ikastolak ez zuen aurreko irailan BUPeko lehen ikasturtearen prematrikula ateratzerik izan.

2.- Iñaxio Oliverik horrela agindu arren, ez dirudi Fernando Buesak zuzentzen duen sailak hirugarren solairuan egindako obren % 80a ordaintzerik nahi duenik.

3.- Horrez gainera, hiru gelaren diru-laguntza kinka larrian dago.

Laburbilduz, ziur gaude goi-mailako politikak bere lekua eta denbora behar dituela, baina honek ez du esan nahi eguneroko arazoei ere entzun behar ez zaienik. Izan ere, politikoen bokazio eta borondatea eguneroko gauzetan ere frogatu behar da, herritar normalok ulertzen eta sufritzen dugun gauzetan, hain zuzen ere.

Kontxi Irizar

Euskararen inguruan

Duela zenbait urte euskaraz idazten ikasi genuen. Momentu hartan esateko eta idazteko erak desberdinak zirela ohartu ginen. Esaterako, "biot" berba, behar dut (behar dot) idatzi behar genuela, eta "eitten" egiten.

Orain irten (urten) aditzari heldu zaio txanda. Esaten, eroaten, entzuten, ematen (emoten), e.a. aditzak idazten

ditugun bezala irteten idatzi behar dugu eta ez irtetzen, egitzen, eroatzen, entzutzen, ematen, e.a.

Era berean, euskara batuak oraindik ez digu esan (eta ez dut uste inoiz esango digunik) eroan, berba, ostera, laga, antxitxiuketan, e.a. erabili ezin ditugunik; orduan, zergatik gure idazlanetatik baztertu?. Gurea den lexikoa zabaltzen ez badugu, zeinek egingo du gure ordezt?. Hori bai, kexu bidea berehala topatuko dugu.

Hemen esandako guztia aplikagarria zaio gure BERRRIGARA astekariko hizkuntz arduradunari. Nire eritzia baino ez dut plazaratu nahi izan baina euskaldun guztion onerako delakoan nago. Zain dezagun euskara!

Besterik gabe, eta gutun honi dagokion erabilpena emango diozuela koan, atseginez agurtzen zaituztet.

Berrigararen lagun bat

OHARRA:

Gutunak sailera bidaltzen diren eskutitzak 20-25 lerrotakoak baino txikiagoak behar dute izan eta bidaltzailearen izen-abizenak, nahiz eta izenorde batekin publikatu, eman beharko dira.

Tiira ba!



Josu Okina

☐ Sugeak ikusgai

Apirilaren 27tik maiatzaren 1era suge, narrazti, krokodilo, barraskilo handi eta beste hainbat espezie (40-50 arteraino) ikusteko aukera izango da San Martin enparantzan kokatuko den trailer handi baten barruan. Eskola taldeek sarrera dohainik izango dute eta gainerakoek, 300 pta. nagusiek eta 150 haurrek ordaindu beharko dituzte.

☐ 42ko kintoak

Datorren maiatzaren 9an 1.942. urteko kintoek beraien eguna ospatuko dute. Monja Zaharretan meza izango da arratsaldeko 7 t'erdietan eta ondorengo afaria, 9etan, Antxonin egingo dute. Interesatuak *Goxo-Toki, Mizpildi, Lonbide* edota *Edelen* eman dezakete izena apirilaren 30a baino lehen.

Elorregi auzoan, San Prudentzio jaiak astebukaeran

Joan den igandean Elorregin hasiera eman zitzaion San Prudentzio jaiak aurrera egingo dute astebukaera honetan. Ostiralean, hilak 24, arratsaldean txopoak jaso eta kanpaiak jo ondoren, mus eta tute txapelketaren azkenak jokatuko dira gaueko 10etan.

Frontoi berria

Larunbatean, eguargoko 12etan pelotaleku berriaren inaguraketa egingo da, ohizko beinekazioa eta ondorengo jaialdiarekin; bertan, bertsolariak, trikitilariak eta binakako pelota partidua izango dira. Frontoi berri honek 28 m.ko luzera, 12 m.ko zabalera eta 9 m.ko altura du. Kostuari dagokionez, aurrekontua 37 milioi pta.koa izan da, Manko-



muniategi 27 eta Udalak gainontzeko 10ak ordaindu dituztelarik.

Ekitaldiekin jarraituz, larunbatean ere bazkaria izango da 2.30etan eta bazkalostean, bertsolariak eta trikitrixa. Gauean, 10.30etan, Lotxo taldearekin erromeria.

Igandeko ospakizunak goizeko 11etan izan-

go den meza nagusiarekin hasiko dira. Xamatza dantza-taldearen saioaren ondoren, txinga erutea eta Oregi anaien Oñatiko Barrena eta Osa II. aren arteko partidua.

Bukatzean, asteartean, San Prudentzio egunean, Meza Santua izango da arratsaldeko 7 t'erdietan.

Zumelagari ongi-etorria

Asteartean 200 herritar inguruk hiru urtetan preso egon den Pedro Zumelagari ongi etorri beroa eskeini zioten Plazan. Herriko beste euskal preso, errefuxiatu eta deportatuen izenean eta Amnistiaren aldeko Batzordearen eskutik bi lore sorta jaso eta bere omenez dantzatu zen aurrekuaren ondoren, Pedro Zumelaga bildutakoei zuzendu zen, "presoez gogor dirautela eta herrian jendeak lanean jarraitu behar du" esanez. Amnistiaren aldeko Batzordeko kide batek ere presoen egoerari buruzko xehetasunak eman zituzten, bildutakoen manifestazio batekin burutu zelarik ekitaldia.



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

Euskalduna Taberna

OSINTXU

ONENA TINDATEGIA


Barrenkale 29, BERGARA

□ **Jaialdia atzeratu**

Oxirondo Elkarteak **ASPACE**, gutxitu fisikoen elkartearen alde antolaturiko eta apirilaren 25erako iragarrita zegoen pelota jaialdia atzeratu egin da datorren larunbatera arte, maiatzak 2. Jaialdi honetan munduko txapeldun eta Bartzelonako Olinpiadetara joango diren hainbat pelotarik hartuko dute parte.

□ **Pastorala**

JARDUN Elkarteak **Treville** pastorala ikustera joateko autobusa antolatu du maiatzaren 3rako Zuberoara. Pastoral hau hiru mosketeroen bizitzetaz buruzkoa dugu eta kritika oso onak jaso izan omen ditu. Interesatuek **JARDUN** Elkartearen, Kultur Etxean, edota 76 03 97 telefono zenbakira deituz eman dezakete izena lehen bait lehen, plaza mugatuak baitira.



Eliz artxiboak gorde

Santa Marina, San Pedro eta Elusuko parrokietako artxiboak Donostiako Eliz Artxibora aurki eramango direnez, Bergarako Udalak berorrek mikrofilmatu egingo ditu kopia batekin gelditzeko asmoz.

1.544-1.916 urte bitartean gertatutako jaiotzak, heriotzak, ezkontzak, parrokietako kontuei buruzkoak, hildakoen omenezko mezak, bisita liburuak eta beste hainbat gai biltzen dituzten liburu guztiak Donostiara bidali behar dira, Eliz Artxiboan

Bergara eta Gipuzkoako beste herri batzuetako liburuak bakarrik falta baitira.

1.916.etik gaur artekoak, egunero erabiltzen direnak, hemen utziko dira, kontsulta ugari egingen bait ditu jendeak eta ikertzaileek. Materiale guztia behar bezala sailkatuz gero, Udalak mikrofilmatu lanen adjudikazioa emango du. Arantzazu Oregi udal artxiberoaren hitzetan, "artxibo historiko hau zein artxibo administratiboa oso aberatsak dira Bergararen kasuan".

□ **163 zka.**

Kultur Taldeak, Jaiak eta Gazteria Batzordeak Gabonetako argiak jartzeari buruz eritzia eman zuten 74 erantzunen artean egindako zozketan, Lasa jatetxean bi pertsonarentzako bazkaria dastatzeko zenbaki saritua 163a izan dugu. Zenbaki honen jabeari Kultur Etxetik pasatzeko eskatzen zaio. Eta on dagiela bera eta bere lagunari!!

□ **Estanpak**

Estanpa lehiaketan parte hartzeko izena emateko epea apirilaren 30ean amaitzen dela jakin arazten du Kultura Zerbitzuak. Bi sari jarri dira irabazleentzat, 50.000 eta 25.000 pta. koak eta parte hartzeagatik, talde guztiek 20.000 pta. jasoko dituzte dieta gisa. Izena emateko Kultur Etxera jo dezakezue.

LONBIDE

OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

TOKI-EDER

Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

KONDE

PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

**Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA**





Pakearen alde

Gure herrian osatu berri den "Bergararrak pakearen alde" kolektibok bilera berri bat izan du aste honetan. Kolektibo honen esanetan, "inongo zeinu politiko, erlijioso, kultural edota soziali lotu gabeko pakearen aldeko talde bat izan nahi dugu, parte hartu nahi duen edonorri irekia egongo dena".

Kolektibo honek apirilaren 2an egin zuen jende aurreko bere lehen agerraldi publikoa, egun batzuk lehenago izandako atentatuaren aurka isileko protesta egiteko. Hain zuzen ere, prest di-

ra heriotza biolentoren bat gertatzen deneko hurrengo egunean, arratsaldeko 8etatik 8.15ak bitartean Fraiskoizuri Enparantzan konzentrazio bat egiteko, beti ere isiltasun osoan egingo dena.

"Bergarrak pakearen alde" osatzen dutenek egindako idazkian, "pertsonek eta herrien eskubide guztiak bizitzaren defentsan oinarritzen direla eta, gizarte solidarioagoa lortzeko, biolentzia errefusatu, elkarrenganako errespetuan konfidantza jarriko dutela" jasotzen da.

Txinpartak

✓ **12 orduko futbito txapelketa** jokatu da larunbatean, hilak 25, Labegarrietako Kiroldegian goizeko 9etatik aurrera, auzoko jaiei hasiera emanez.

✓ **Requiem eta La Secta** taldeek kontzertua eskeiniko dute larunbatean, hilak 25, gaueko aurrera Tartufo tabernan.

✓ **III. Otaba Pelota Txapelketa** jokatu da Elusun igandean, hilak 26, goizeko 11etan. Mutikoen partidu bat eta beterano kategoriako beste bi iragarri dira.

✓ **Ione Berasategiren** margo erakusketa ikusgai izango da Nahikari tabernan apirilaren 30era arte.

✓ **Elgetako odol emaileek** dei egiten dute datorren astelehenean, hilak 27, sendagilearen gelan arratsaldeko 6etatik 8etara egingo den bileran parte hartzeko.

✓ **Elgetako Oskarbi Elkarteak** elkartearen eguna ospatuko du datorren maiatzaren 3an. Bazkarira joan nahi dutenek izena eman beharko dute elkartearen bertan apirilaren 26a baino lehen.

✓ **Aitor Zabaleta** bergarar kotxe gidariak irabazi egin zuen joan den igandean Gasteizen jokatuak Zaldiaraneko Igoera. Horrez gain, Egozkuek zeukan errekorra hautsi zuen 1' 57" eta 80/100eko denborarekin.



KIZKUR



Heapaindegia
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

Bazkariak
eta
afariak

Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR

SOLANA

- Materialen erreperazioa
- Kontenedore zerbitzua
- Zaborrak eta hondakinak



Uzarragara bidea, z/g. • 6 P.K. • ANTZUOLA
Tfnoa: Biltegikoa: 78 70 08. Etxekoa: 78 70 09

Aranzadi Ikastolako haurrak Berrigararen bisitari

Astekariko erredakzioaren goraberak gertu-gertutik jarraitu zituzten



Itziar Balzategiren 4. A mailako haurrak.



Arantza Idigoras eta 4. B-ko bere haurrak.



Idoia Azkarate eta 4. D mailako haurrak



4. E-koak Maddalen Orbegozo andereñoarekin

M.
OSINAGA

Etxeko
erreformak

Sukaldeko
altzariak

Espaloia z/g
Tfnoa: 76 29 85 / 76 00 57

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak.
Eguneko menua daukagu.

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

San Esteban

San Esteban ermita Elkoro-barrutiaren ondoan dago, eta baserri honen nagusia da bere jabea. Badauka mezatarako kaliz bat, Elkoro-barrutiako armarrria xixelatua daukana, eta hau dio erdaraz: "Lopek ekarri nindun-urtea..." baina zenbakiak urratu egin zaizkio. Noizkoa ote ermita hau?... Beste askori bezala zaila da galdera honi erantzutea; hauxe bakarrik esan dezakegu: ermitak bazituztela beren serorak, bakoitzak bi ere bai askotan, eta horietako bat 1.551 garren urtean San Estebango Martina izenarekin azaltzen zela.

Ermitaren orma pixka bat mugituta edo zartatua dago, eta barrenean erretabola polita dauka, Santa Barbara eta Santa Katalinaren irudiekin, eta erdian San Esteban

diakonuarena, kristauen lehendabiziko martiriarena; hau mezatako arrokekin jantzita dago eta kasuilaren beheko aldean bere heriotzaren xixelatutako irudia darama.

Diotenez, arzobispo jaun bat bizi izan omen zen Elkoro baserrian eta bere heriotzean bertako ermitaren ondoan hilobiratu omen zuten. Ez dakit nor izan ote zitekeen, baina Andres Aiardi izeneko bergarar bat izan zen, Brindezko Arzobispoa Napolesen eta, beste alde batetik, Aiardi baserria ez dago hain urruti Elkorotik. Dena dela, badirudi ermitaren ondoan, ezker aldera, hori adierazten duen hesiz itxitaiko lur zati bat dagoela.

Imanol Sorondo



San Esteban ermita, Ipiñarri baserritik gora aurkitzen da, Elkoro-Barrutia baserriaren aurrekaldean. Zein urtetan eraiki zen jakitea zaila bada ere, esan behar da, 1.551. urtean San Estebango Martina izeneko moja bat bazegoela San Estebanen.

SURPE
Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

Taberna kafetegia

EHIZTARIAK
LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna
Zubleta 26, BERGARA

DENA 100

pzta.tan

Ireki berria
Simon Arrieta 3an

LARRAÑAGA
eta **ZUBIA**
Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak

Martokua 32, tfnoa: 764594

ELADIO
OINETAKOAK

Oinetako konponketa

MATXIATEGI 2,

Tfnoa: 76 54 60

BERGARA





Mariaren Sierbak konbentuko erizainak

Mariaren Sierbak oso ezagunak dira mundu zabalean, gaixoak etxetan zaintzen egiten duten lanagatik. Bergarakoak ere oso ospetsuak dira. Alkabieta kaleko konbentuan 10 monja bizi dira eta lau dira gaixoen etxetara gaua pasatzera egunero irtetzen direnak.

Begarako Mariaren Sierben bizimodua gertuagotik ezagutzeko aukera izan dugu eta hemen doakizue eurekin izandako hartu-emanaren berri.

Mariaren Lagundia-koak hezkuntza eta Karitateko Alabak Mizpirualde zaharren egoitzan egiten dituzten lanagatik ezagutzen ditugu batez ere; eta Mariaren Sierbak, lehen Artekalen,

Larrañaga Autogidarien Eskolako etxean zeudenak eta orain dela 26 urtetik Alkabieta kaleko etxean daudenak, konbentutik kanpo gaixoei laguntzen gauak pasatzen dituztelako ezagu-

tzen ditugu.

Eritetxea konbentuan

Mariaren Sierben konbentua eritetxe bihurtzen da egunaren za-

tirik haundienean. Goizean zein arratsaldean tentsioa hartu, injekzioak ipini, zauriak sendatu eta beste hainbat lan egiten dituzte. Egunero 20-30 bat lagun pasatzen omen dira bertatik, "neguan udan baino gehiago etortzen dira, katarro gehiago egoten da eta" esan digu monja buruak. Eta eritexeetan egoten direnak bezala, Sierbatako monjak ere enfermerak dira: "Mariaren Sierba guztiak ATS-ak gara, Pio XII Aita Santuak horrela erabaki zuelako, gaixoak zaintzen ibiltzen ziren kongregazio erlijioso guztietako monjak ATSak behar zutela izan".

Egunez konbentuan lan egiten badute, gauean konbentutik kanpo aritzen dira: "gauetz lan egiten duten lau ahizpek, arratsaldean egiten dute lo eta gaueko 9.30ak inguruan gaixoak zaintzera irtetzen dira; goizeko 7ak arte ez dira bueltatzen".

Begarar asko dira Mariaren Sierben laguntza jaso dutenak, eta beti ere hutsaren truke, lanagatik ezer eskatu gabe: "musutruke egindako lana da gurea, ematen dizkiguten limosnetatik bizi gara eta".

Fedearen krisia

Gaixoei izandako hartu-emanetan gertatutako anekdoten inguruan luze jardun dugu Ber-

BERGARA
Karrozeria

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31

Zubieta 46
Bergara

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

garako Mariaren Sierben monja buruarekin, Orenseko herrixka txiki batetan jaiotako Sor Felisarekin. Gaur egungo gazteen erlijio bokazio ezaren inguruan jarduteko parada ere izan dugu: "argi dago, bai gure kongregazioan, eta baita besteetan ere, beherakada haundia izan dugula, ez Ameriketako herrialdeetan beste, baina beherakada igarri da. Gaur egungo bizimodua ez da lehenagokoa modukoa, fedeak behera egin du, beste balore batzuk gora egin duten bitartean, diru gehiago dago,

komoditate gehiago... Hala eta guztiz ere belunaldi gazte berriak gai hauetaz zertxobait gehiago kezkatzen hasi direla somatzen dugu".

Bergarako Sierben konbentuko ama burua izan dugu solaskide baina argazkiak ateratzeko orduan denak bildu nahi izan ditugu. Baten batek huts egin du etxetik kanpo lanean zebilelako, baina gehienak lorategian bildu eta Kongregazioa sortu zuen Santa Maria Soledaden irudiaren inguruan atera diegu erretratua.

Blasa Ortiz de Zarate

Mariaren Sierbek zaindu zuten

Blasa Ortiz de Zarate mokorretik operatu zuten orain dela hilabete batzuk. 72 urte ditu eta alarguna da. Donostiako erresidentzian egin zituen egunetan Bergarako Sierbetako 'Sor Pureza monjak zaindu zuten: "oso lagungarria izan zitzaidan. Gauero etortzen zen Donostiara eta beharren bat izaten nuen bakoitzean bera edukitzen nuen alboan beti edozertarako prest".



Madriletik mundu zabalera

Mariaren Sierbak kongregazioa 1.851. urtean sortu zuen Santa Maria-Soledad madrildarrak: "egia esan Don Miguel Martínez apaizak bultzatu zuen. Etxeetan gaixoak zaintzeko behar haundia zegoela ohartu zen eta lan horiek inork egiten ez zituenez kongregazio erlijioso bat bultzatzea bururatu zitzaion. Zazpi monja aukeratu eta horrela sortu zen Mariaren Sierbak ordena", esan digu Bergarako Sierben Monja Buruak. 1.876an Eleizak ofizialki onartu zuen.

Madriren sortutako zazpikote haren hazia Estatu Osora lehenengo, eta poliki-poliki mundu osora zabaldu zen. Gaur egun 230 etxeetan banatutako 2.600 bat erlijiosak osatzen dute Mariaren Sierbak kongregazioa. Horietatik 100 inguru Euskal Autonomi Elkarteke 5 etxeetan banaturik daude, hain zuzen ere Bergara, Azpeitia, Donostia, Bilbo eta Portugaleteko konbentuetan banatuta. Bergaran 10 dira.

Mariaren Sierbena ez da Bergaran dagoen kongregazio bakarra, honez gain, Mariaren Lagundia, Monja Zaharrak edo Frantziskanak eta Mizpirualdeko Karitateko Alabak ere badituzte euren etxeak. Mariaren lagundian 43 monja daude, Karitateko Amak 6 dira eta Frantziskana klarisak, oster, 16.

ELKAR 

ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako
instalazioak

76 00 00 BERGARA

AFA - BI

Manufakturak, S. L.

P.V.C. Arozgintza eta aluminioa

Veka Sistema (Alemaniarra)

San Lorentzo z/g Tfnoa: 76 50 92 - 76 21 59 BERGARA

Zubiberri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06



ETXE AUNDI

Negozio bazkariak
E z k o n t z a k
B a n k e t e a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

FS

oto sistema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.


Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

EXPO 92 bisitatzera joateko asmorik badaukazu?




M. A. Fdez. de Arroyabe
66 urte, etxekoandrea

Bai, jubilatuetan dirulaguntzak ematen dituzte eta apuntatu egin naiz Sevillara joateko.



Asier Garcia
22 urte, ikaslea

Ez naiz joango oso garestia delako. Gainera diru gehiegi gastatu dela pentsatzen dut.



Aitor Larreategi
33 urte, langabetua

Ez diot interes haundirik ikusten eta ez naiz joango, bonbo gehiegi eman dioten arren.



Ana Mari Gallastegi
39 urte, etxekoandrea

Gustatuko litzaidake baina kostu haundiegia da eta ez gara joango.

IKASI EUSKARAZ

Udan hilabetez familia euskaldun batean
15.000 pzta.gatik

Argibide gehiagotarako deitu edo etorri EUSKARA ZERBITZURA.Tfnoa: 76 39 42.

BERGARAKO UDALA



EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEA



"Pena"

Entzun izan dut "Garrasi ixila" izeneko talde famatua eratzekotan edo eratuta dagoela gure herrian, eta hau entzutean sentitu dudan gauza bakarra pena izan da. Pena, Euskal Herrian jasaten dugun biolentzia ikuspuntu hain sinplez ikusten dutelako.

Pena, aldarrikatzen duten pake horretan negoziazio hitzak lekurik ez daukalako.

Pena, biolentzia mota bakar bat besterik ez dutelako ikusten; gure presoek bizi duten egoera ez al da biolentzia mota bat?

Pena, talde honi ematen zaizkion dirulaguntzak herriar guztion poltsikotik ateratzen direlako.

Pena, talde honen jarraitzaile askok (ez denak, badakit intentzio onekoak ere badaudela), pakearen aurrean bi aurpegi ezberdin azaltzen dituztelako: Golkoko guda, OTAN, etab...

Guzti honengatik, ez dut uste talde honen helburua Euskal Herriaren benetazko pakea lortzea denik, pake hori elkarrizketaren bidetik bakarrik lortu bait daiteke.

Ion Ander Bengoa



EXPO 92ren inguruan

Dagoeneko hasi da denbora luzez hainbeste jendeak itxaron duen Sevillako EXPO. Izugarriko milioikada gastatu ondoren, PSOEren gobernuak badu "Espainiako urtea" deitu duten honi hasiera emateko osagai nabarmena. Aste honetatik eta urrira arte mundu osoko gauza zoragarri, ikusgarri eta garestienak erakutsiko dizkigute; eta zuzen zuzenean ikusi nahi baditugu, txanpon ugari atera beharko ditugu poltsikoetatik. Hau da beraiek halabeharrez gure begien aurrean jarriko dutena.


Aldiz, gobernuak (gobernu ezberdinek) eta komunikabide gehienek ez digute erakutsiko EXPO 92aren beste alde. Ez digute erakutsiko Sevillako biztanleak berdin bizitzen jarraitzen dutela. Ez digute erakutsiko Amerikako hainbat herri "ospakizun" honen aurka jarri direla. Ez digute erakutsiko neurri haundi batean EXPO 92 eta Amerikako herri indigenen suntsitzea elkar lotuta daudela. Eta azkenik, ez digute erakutsiko zenbait jende "show" honen aurkako jarrera garbia erakutsi duela, eta honegatik zaurituak itzultzen direla Sevillatik.

Mikel Lizarralde

anezka

Udazkenerako oihalak eta lenzeria

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25



ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak. Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

Mugica

Gozotegia

Artekale 3, Tfnoa 76 10 34

DEBA GARAIKO ALBAITARITZA KLINIKAK

BALDANA A.K. (Bergara)

Koldo Eleizalde 28, behea (76 27 97).

Ordutegia: Astegunetan:

•12.30-14.00 •15.00-17.00 •20.00-21.00

Larunbatetan: •11.30-13.00

ALTAMIRA A.K. (Arrasate)

Iñarra 24, behea (79 74 89).

Ordutegia: Astegunetan:

•10.00-12.00 •17.30-19.30

Larunbatetan: •9.00-11.00

Larrialdiak: 908100930 • Abonatu zenbakia: 0247406

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

Erakusketa

ione

Berasategi

Apirilak 1etik 30era
Tfnoa: 73 39 52

NAHIKARI-n

Mahasterreka 20,
Tfnoa: 76 57 71
BERGARA



☐ Aste Santuan Alemanian kantari

Aste Santua garai egokia da, antza denez, norberak gustoko duen aktibitateekin loturiko bidairen bat egiteko. Ikasleak nagusi badira ere, **Aritzeta Abesbatza** ere kantari izan dugu Alemanian. Bost egunez, **Reinbekeko** (Hamburgo) Udalak gonbidaturik, **Judgenchor Reimbek** koralararekin *Europa Cantat* izeneko ospakizunetik mantentzen duten harremana sendotu eta, bide batez, bere kategoria musikala azaldu diete germaniarrei. Horrez gain, nola ez, Alemanian zehar turismo apur bat egiteko aukera paregabe hau aprobetxatu dute eta benetan gustora etorri dira ikusitakoarekin eta jasotako harrerarekin. Errepikatzeko modukoa!!

☐ Zinean

Arrakasta handia lortzen ari dira haurren artean **JARDUN**ek antolatutako bideo-emanaldiek. Hamabostean behingo emanaldiotan ia zine-matinaletan beste jende biltzen zaigu Kultur Etxean. Ekainera arte izango diren proiektzioekin jarraituz, larunbat honetan, hilak 25, goizeko 11etan "**Bi hiritako gertakizunak**" eskeiniko da. Zatozte goiz ederra lagunekin igarotzera!!



ANDUZU

**ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA**


- Azulejo erakusketa
- Onduline
- P.V.C.
- Blokeak
- Pinturak

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65



JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

FERNANDEZ




**Oihal puskak
Oihalak**

San Antonio 3
Tfnoa: 76 22 93

Ibargaral 2
Tfnoa: 76 53 22

□ **Trebetasuna**

Toño Ariasek irabazi zuen LAMek antolatu eta Oilagorra tabernan jokatu zen karanbolen billar txapelketa. Berak eraman zituen irabazleari zegozkion 15.000 pta. eta txapeldun trofeoa, finalean **Juan Carlos Herrerosi** irabazi ondoren. Hirugarren postua berriz, **Rafa Alcaiderentzat** izan zen. Bergararrak nagusi beraz, eta maila polita parte hartu zuten 24 jokalariek erakutsi zutena.



□ **Omenaldia 3 apaizi**

Bergarako Eusko Alderdi Jeltzaleak Serafin Esnaola, Jesus Mari Zamora eta **Juan Arretxe** apaizei omenaldia eskeini zien orain gutxi. Goizean, jende ugari bildu zelarik, meza izan zen Monja Zaharretan eta bertan parte hartu zuten, besteak beste, Azpillaga bertsolariak, Ena dantzariak, Umore Ona koralak, txistulariak... Giro ezinhobea, ondoren Batzokian egindako bazkarian izan zenaren antzekoa. Han, hiru apaizek, lagunartean ondo bazkaldu eta, horrez gain, bildutakoen errekonozimendua eta erregalu bana jaso zuten.

Zertan dihardute ba?

MARIA DOLORES PEÑA



Berrogei urtetan Algodoneran eta Tavesan lan egin ondoren, ohialeko kimikari hau aste honetan bertan jubilatuta da, bere lankideek asteazkenean Sagarpe elkartearen afari omenaldia eskeini ziotelarik.

EUSKARA BATZORDEA



Euskara Batzordeak Esther Zarrua eta Roberto Kerejeta, Euskal Filologian eta Historian lizentziaturiko 25 urteko eibartarrei eman die herrian izan diren euskara eta euskal kulturaren bultzatzaileen historia aztertzeke beka.

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA

D. IRALA 5
Tfnoa: 76 24 88 BERGARA

SUBIJAI
Gazteentzako moda

Irizar 1, Tfnoa: 76 42 41

TOKI-ONA
Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak -
Txitxizotzak-Kazolatzkoak-
Txabierroak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

Umore giroan

Azkena neu

Esaten dabe, azkenengo urtietan, Marino oso kejati biurtu zala. Berak esaten ei zeban au be: "Nik txapel fabrikia ipiñi izan banejuan, umiak buru barik jaixoko zotxuazen".

Kejaka zeguan egun baten, beste batek esan zetsan:

- Ez ari kejau Marino, i baño txartuago bizi diranak asko ditzuk. Begiratik atzera, gizona!

Eta Marinok:

- Atzera begiratu esaten dok?. Ezin, baiña. Neu nok azkena ta!

* * *

Kuadro bat geixago

Etorri zan, gerra pasau ondoren Marino bere



Eibar maitxera. Eta, zelan ez! leneguetako bisitxia Astelena pelota lekura izan zen. Arritxuta esaten zetsen bere lagunei:

- Karanba!, au eztoz lengo pelota-lekua!. Au aunditxu eñi dozue.

- Ez gizona, au lengo moduan daok. Onek lengo kuadruak jakaz.

Eta Marinok:

- Ez, onek -an zeguan Francoren kuadruari begira-gitxienez, kuadro bat geixago jaukak.

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Arma gordailua Udaletxean

Erdi Aroan azken aldetik Euskal Herriko herriguztiek izan ohi zuten gizon armatuz osatutako milizia, kanpoko nahiz barruko erasotatik herria defenditzeko prest zegoena. Milizia hau ez zen erakunde militarra, udalak behar zenean su-izkiluz ornitzen zuen herritarrez osatutako taldea baizik.

Urtean behin alardea antolatzen zen gizonak ondo entrenatuak zeudela demostratzeko eta kalez kale desfilatzen zuen dendariz, jostunez, tabernariz edo ermentariz osatutako armada beldurgarriak, tartean konde edo markes-kumeren bat edo besterekin.

Bergaran Paskua bigarrenegoz egiten zen desfilea eta hasteko herritarrak udaletxeko gela itxi batean zegoen arma gordelekura

zuzentzen ziren. 1.670eko alarde buruan bi estandar-te zihoazen, bi lantadun azkonekin eta bi alabardari; ondoren, tropen buru, infanteriako kapitain bat zidarrezko lantza motzarekin eta sedazko kordoidun arka-buz zahar batekin. 160 aitonsemek osatzen zuten konpainia, bakoitza bere mosketoiarekin eta bere polbora-zorro, baketa eta urkilarekin.

Normalean, gerra arrisurik ikusten ez zenetan, jaiegun haundia izaten zen alardea; lau daunbada botatzeko aitzakiarekin herritar guztiak elkartzen ziren bazkaltzera. Tradizioa galdu egin zen baina ez adibidez Elorrion non urtero ospatzen ziren Errebonbillo famatuak

Alberto Santana

JUBILATUEN TABERNA

• Bazkari eta afariak

Tfnoa: 76 62 71 ANTZUOLA

ETXAGI

Jatetxea

Afariak - Bataioak

Jaunartzeak

Eguneko menua

Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

EDEL tapizdenda

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoia, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA



Las Postas

KAFETEGIA - JATETXEA

Logroñorako bidean (Gasolindegian)

Tfnoa: (941) 10 02 85

LAGUARDIA

(ARABA)

Euskadiko Xake Txapelketa Bergaran jokatzeko ari da


Aste osoan zehar jardun ondoren igandean emango zaio amaiera

Euskadiko Txapelkunak, lehendabiziko partida galdu zuen

"Hogei bat egunetan entrenatu gabe egon naiz, gaixo egon naiz eta, gero Aste Santuan ere ez dut batere entrenatu eta ez naiz sasoi onean iritsi txapelketara. Bestalde gehiegi konfiatu nintzela uste dut..." horrela esplikatu digu Izeta Euskadiko Xake Txapelkunak, lehen egunetan jasadako porrota.

Kontuak kontu, oraindik aukerak baditu Euskadiko txapela hirugarren aldiz jatzeko. Hortarako, igandera arte geratzen diren partida guztiak irabazi beharko ditu.

Bere favoritoak, Mario Gomez eta J.M. Calvo.



✓ **Bergarako Xake Taldeak 20 urte betetzen ditu aurten.**

✓ **VI. Bakarkako Euskadiko Xake Txapelketa honetan, 25 jokalarik hartzen dute parte. 12 gipuzkoarrak dira, 6 bizkaitarrak, 4 arabarrak 2 nafarrak eta Iparraldeko ordezkari bakarra.**

✓ **Txapelketa sulzar erara jokatzeko da eta irauten duen 7 egunetan beste hainbeste partida jokatzeko da jokalarik bakoitzak. Irabazitako partida bakoitzeko puntu bat eskuratzen du jokalariek, tablak egin ezker, berriz, puntu erdi eta galduz gero, batere.**

✓ **Igandean jokatuko dira azken partidak. Txapelketa eskuratzeko aukera haundienak dituztenak honako hauek dira: Mario Gomez bizkaitarra, Jesus Mari Calvo, orain dela egun batzuk jokatu berri den Kutxa Xake Txapelketako garailea eta Felix Izeta Euskadiko Txapelketa.**

✓ **Martin Arriaran eta Andres Diez Bergarako Xake Taldeko Presidentea dira bergarar ordezkari bakarrak.**

✓ **Euskadiko Txapelketaren VI. edizio honetako aurrekontua 2 milioi ingurukoa da.**

Martin Arriaran eta Andres Diez bergararrak, txapelketan buru-belarri

Euskadiko Txapelketan jokatzeko ari diren bergarar ordezkariak bikain aritu dira lehenengo lau egunetan. Aurreneko bi partidetan tablak egin ondoren, hirugarrena galdu egin zuten eta laugarrena, elkarren aurka jokatu eta tablak egin zituzten.

Andres Diezek 34 urte ditu eta 15 urte zituenean Jubenil mailako Gipuzkoako Txapelkun geratu zen. Martin Arriaranek 27 urte ditu eta gabonetan jokatutako Arrasateko Xake Opietan 3. sailkatu zen, Felix Izeta eta Kovasevich Yugoslabiarraren atzetik.



GURIDI Altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

GESTORIA EGUREN

M. Pilar Eguren Diez
Kolejlatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta enparantza 3, behea,
Tfnoa: 76 21 65 - 76 24 45

LETE

TOLDOAK

Kataide Pol/Ind. 14. Pab.
☎ 79 23 83 ARRASATE
☎ 76 12 24 BERGARA
☎ (94) 681 76 19 IURRETA



San Antonioko Shooting Club

Bere liburuan Antonio Urzelaik dioenaren arabera, SHOOTING CLUB izena zuen Bergaran izan zen lehenengo futbol taldeak. Gipuzkoako aurrenekoetakoa izan omen zen, gainera. Torrekuako futbol zelaian jokatzen omen zuen eta 1918-20 aldera desagertu omen zen.

Erretratu honetan agertzen zaigun taldea ere SHOOTING CLUB da baina ez da aurreko bera. Honako honen izena SHOOTING CLUB DE SAN ANTONIO izan zen eta herriko beste auzo batzuetako ekipoen kontra jokatzen zuen.

Hara zeintzu diren ezkerretik eskumara:

Amador Garitaonaindia, Ramon Arruabarrena, Fermin Agirre, Jazinto Azkarate, Bizente Moñux, Periko Urzelai, Tomas Moñux, Simon de Pedro, Agustin Uriarte, Pello izeneko bat eta Iñaki Aristegi.

*Estepan Plazaola.
Argazkia: Fermin Agirre.*

**Zure
konfidantzako
denda**



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

ETXEBIZITZA

Harane Errekan garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Etxebizitza salgai Artzamendin. ☎ 76 10 10 (gaueko 8etatik aurrera).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 61 (arratsalde).

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 04 15 (iluntzeko 8etatik 10etara bitartean).

Bi apartamentu alokatzetan ditut: bata, Gandiako hondartzan eta bestea Bellreguart-eko (Gandia) hondartzan. ☎ 96-286 66 12 / 96-286 85 41.

Pisua salgai Ozaetan. Ganbara, garaje eta guzti. ☎ 76 51 52.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauez.

Garajea salgai Espalioan. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

Pisua salgai Urteaga kalean. Sukaldea, 3 gela, saloia eta bainu gela. Amueblatuta. ☎ 76 14 87.

Garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

SALDU-EROSI

Yamaha SR-250-E, salgai, SS-AH matrikula. ☎ 76 52 30.

Adria 440 karabana salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 43 98.

6-8 urtekoentzako Fondoko eski pare bat salgai. 5.000 pzta. ☎ 76 32 69.

Amnstrad konsola salgai, hiru jokurekin. ☎ 76 53 67.

Dantzaldietan, bodetan e.a.etan ibiltzen den taldeak teklista bat behar du. ☎ 73 01 17.

Musika jotzeko bateria salgai. ☎ 76 53 55.

9 bandadun AKAI EA-A1 ekuualizadorea eta AKAI AP-X1 tokadisko erdiautomatikoa salgai. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Ski alpinoko bota pare bat (43a) salgai. Berri-berriak, 2 hilabete. ☎ 76 38 72. Alex.

PENTAX objetiboa, 28-80, F: 3,5 salgai. 15.000 pzta. ☎ 76 28 55.

VIVITAR objetiboa, 70-210, F: 4-5,6 salgai. 10.000 pzta. ☎ 76 28 55.

Mendiko bizikleta (hiru koloretako MBK) galdu zait Mahasterrekako etxe berrietako garajeen. Topatzen duenak dei nazala mesedez. ☎ 76 25 45.

GOLF GTI, SS. AB matrikula, salgai. (1.300.000 pzta). ☎ 76 04 22 (gauez).

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. Manuala eta automatikoa. Berri-berria. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

LANA

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

Neska batek edozein motatako lanak egingo lituzke. ☎ 76 21 70.

Baserriko gizon gaztea behar dut nekazaritzako produktuak saltzeko. ☎ 76 12 21.

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Mutil batek edozein motatako lanak egingo lituzke. ☎ 76 03 31.

B.B.B. 3. mallako matematikako irakasle baten beharra daukagu klase partikularrak hartzeko. Deitu lehenbailehen. ☎ 76 10 09. (Maite, arratsaldeko 3etatik 5etara).

Kimikako klaseak hartu nahi ditut. L.H. 2. maila. ☎ 79 50 53 (Jon).

Hildakoak

Victor Bengoa Azkargorta
apirilaren 18an, 63 urte.
Jon Exposito Juaristi
apirilaren 20an, 6 urte.
Afrodisio Gonzalez Fernandez
apirilaren 23an, 87 urte.

Jaiotakoak

Leire Sahuillo Diaz
apirilaren 11an
Lander Ugarte Irusta
apirilaren 11an
Aitor Conti Mellado
apirilaren 12an

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

ITXASMENDI

Taberna


Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA


Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



FAGOR 

SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO GARANTIA




**SORALUZE
OSTATUA**
*IREKI
BERRIA!!*

- Logela ederrak zerbitzu guztiekin.
- Eguneko menua eta karta.
- Ezkontzak, banketeak, bataioak, enpresako bilerak,...

Arantzazurako bidea z/g, Tfnoa: 76 61 79 Faxa: 71 60 70 OÑATI